

Dirua aurrezteko programa aurrendari bat atera du

**EROSKI-K FRANKIZIA ERAKO BIGARREN
SUPERMERKATU BAT INAUGURATU DU LEITZAN,
NAFARROAN**

- **Janari freskoak leku berezia du saltokian; batez ere, sasoiko eta tokian tokiko fruta eta berdurek**
- **Hiru langile ditu supermerkatuak**
- **Estatu osoan, frankizia erako 55 saltoki ireki ditu kooperatibak 2017an**

Leitza (Nafarroa), 2018ko martxoaren 22a.- [EROSKI](#)k gaur ireki du Nafarroan supermerkatu frankiziatu berria, Leitzako Elebarreneko 20.ean. EROSKI/City izena edukiko du, eta Zurekin eredu komertzial berrikoa izango da. Hala, bezeroei tratu pertsonalizatuagoa emango die; era berean, tokiko produktuen eta sasoiko produktu freskoen salmenta indartu ez ezik, elikadura osasungarria sustatuko du, eta eguneroko erosketan aurrezteko modu berriak eskaini. Hiru langile ditu zentroak.

Supermerkatuak 2.000 produktu eskainiko ditu, ekoizle liderren markakoak, marka propioak eta tokiko ekoizleenak, eta 150 metro koadro ditu. Horretaz gainera, elikagai freskoen eskaintza zabala edukiko du; bereziki, sasoiko tokiko frutena eta barazkiena, eta erreferentzia osasungarriek garrantzia hartuko dute, produktu ekologikoen sorta zabalagoa izango baita. Saltokiak okintzako produktuak izango ditu, labe propioan egin berriak, bezeroei freskotasunik handiena bermatzeko.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Club da erakusgarri behinena. Markaren bezero-bazkideen harremanerako programa berria da, eta %15eko deskontuak eskaintzen ditu 2.500 produktutan baino gehiagotan, baita sustapenak, berriazko eskaintzak eta Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere. 178.000 kontsumitzaile baino gehiago dira kooperatibako Bezero bazkideak Nafarroan, eta EROSKI Cluben abantailak ikusten ari dira dagoeneko.

EROSKI-k programa aurrendari bat atera du orain berriki EROSKI Cluben Urrezko txartel berriarekin: erosketa guztietan %4ko aurrezpen finko eta unibertsal bere saltokietan, hala nola hipermerkatuak, supermerkatuak, gasolindegia, bidai agentziak, optikak eta on line supermerkatua. Bezero Bazkideek saldo eran ikusiko dute aurrezpen hori, EROSKI Club txartelean, ondoko erosketetan erabiltzeko.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

55 irekiera 2017an

Joan den astean, beste frankizia bat inauguratu zuen kooperatibak Nafarroan. EROSKIk frankizia erako 55 saltoki ireki zituen 2017an, eta, horretarako, 12,95 milioi euro inbertitu zituen; hala, 507 lanpostu sortu ziren. Irekiera horien bitartez eta denda propioen sarea eraldatzeko ekimenaren bitartez, bultzada indartsua hartu du EROSKIren belaunaldi berriko dendak ezaugarritzen dituen Zurekin eredu komertzialak, zeina markak irekitzen dituen frankizia guztietan aplikatzen baita.

EROSKIk *Merkataritza Frankiziarik Onenaren Espainiako saria* jaso du, Frankiziaren Nazioarteko 28. erakusketan. Joan deneko lau urtean, bigarren aldia da, EROSKIren markak sari hau irabazi duena. Sari horrek, ezagutza emateaz bat, balioan jartzen du negozio eredu honetan diharduten eragile nagusien lana.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)